



ZERAINGO HERRI BATZARRA

Txosten honek 2016ko urriaren 27an egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.



ZERAINGO HERRI BATZARRA	1
<u>1. Sarrera</u>	2
<u>2. Informazioa</u>.....	2
2.1 Zeraintzen S.A.....	2
2.2 Lehen urtearen balorazioko emaitzak.....	3
2.3 Batzordeak	6
2.3.1 Herri Bizitza	6
2.3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza	13
2.3.3 Tokiko Garapena.....	14
2.4 2017ko Aurrekontua.....	18
2.5 Herri txikien etorkizunaren inguruko kongresua	19
<u>ZERAINGO UDALAREN MEZUA</u>	20
<u>ATXONDOKO ALKATEAREN ERANTZUNA (David Cobos Sarraoa)</u>	22
<u>ARANGOITI ESAM KULTUR ELKARTEA</u>	26



1. Sarrera

- Bosgarren herri batzarra izan da, urteko azkena.
- Bilera hau baliatu dugu Zeraintzen S.A.ren gaia itxi, batzordeen berri eman eta 2017ko aurrekontua lantzeko.
- 2016ko herri batzarrek: urtarrilak 21, apirilak 24, uztailak 21, urriak 27.

2. Informazioa

2.1 Zeraintzen S.A.

Ekainaren 29ko Udalbatzan eman genion hasiera itxiera prozesuari eta azaroaren 23ko udalbatzan hartu genuen erabakia.

Apirileko batzarrean Zeraintzen S.A.ri buruz luze jardun genuen. Aurten bertan zituen gastuak berdimentsionatzea ezinbestekoa zela esan genuen eta zer egin pentsatzen ari ginela ez geniolako etorkizunik ikusten.

Uztaileko herri batzarrean Zeraintzen SA ixteko hasierako akordioa hartu genuela esan genizuen. Bi edo hiru hilabeteko prozesua izango zela uste genuen eta langileei proposamenak egin genizkien. 5 hilabeteko prozesua izan da azkenean.

Zeraintzen S.A. 2001ean sortu zuen Udalak Andoni Alustiza alkate zela, etxebizitzak egiteko helburuarekin. Urte guzti hauetan izan duen helburua beste bat izan da: diru laguntzak gestionatzea, udalak diru laguntzak eskatu, kopuru horien arabera “enkomienda de gestion” deritzona egiten zion Zeraintzen S.A.ri eta harek diru laguntza justifikatzeko faktura prestatzen zuen. Beste enpresei lanak eskatuta batzuetan edota zuzenean eginda herri langileen bidez.

Puztuta egon da ia dena: puztuta proiektuen aurrekontua, diru laguntzen kopurua, kostuak... Funtzionamendu horrek, azkenean, udalak inbertsio handiak egitera behartu du. Udalak zuen ahalmenaren gaindik inbertsioak egitera. Inbertsio horietako asko turismo arlokoak izan dira.

Bi urtetan izan ezik, beste guztietan Zeraintzen S.A.ren emaitza negatiboa izan da. Udalak ekonomikoki oso urte txarrak izan zituen:



2004/2005/2006/2007/2008/2009an adibidez. Sistematikoki bere ahalmenen gainetik ibili delako.

2004an epe luzeko 480.000 €ko mailegua eskatu zuen udalak (75.000€ ordaintzea falta da eta 2018an amaituko da 14 urterako eskatu zelako). Duela 3 urte, 2013an, Zabalegiko lurak galdu genituen (16.200 metro karratu) Echaide enpresak eskuratu zituenean 381.000 €-ren truke, kobratzeko zain zituen fakturak kobratzeko. Gregoriok bere lurra berreskuratzeke aukera galdu zuen orduan, gertatzen ari zenaz erabat jabetu gabe.

Zeraintzen S.A.-k, gaur egun, lur zati bat dauka bakarrik (Erregesoro) eta bere balorearen gainetik zegoen kalkulatuta, 63.580 € balio du eta 525.954,81 € tan kalkulatuta zegoen galerak ezkutatzeko. Gaur egun dituen ondasunak udalera pasako dira: furgoneta eta aipatutako lur zatia (Erregesoro).

LANGILEAK

Zeraintzen S.A.-k bi langile ditu. Biei eskaini zaie aukera udalera pasatzeko. Langiletako bat idatzizko kontraturik gabe zegoen eta besteak kontratu pila bat, bat bestearen atzetik, zituen. Biekin akordioak lortu ditugu.

Jakobak zegoen baldintzetan jarraitu nahi zuen bakarrik (2 egun lan egin eta lanaldi osoan kotizatu eta kobratu) hori ez dugunez onartu, ez jarraitzea erabaki du kalteordaina hartuta (42. 625,92 €-koa). Zerainen lanean hasi zenetik (22 urte) urte guztiak kontuan hartu dizkiogu legez behartuta ez geunden arren. Azaroaren 24tik Joxean Udaleko langilea da, lanaldi erdiz, lehen bezala.

2.2 Lehen urtearen balorazioko emaitzak

Lehen urteko balorazioa osatzeko herritarren iritzia jaso dugu. Urtero egiteko asmoa dago, eskerrik asko inkesta erantzuteko denbora hartu duzuen guztioi.

Erroldatuta dauden 16 urtetik gorako zeraindar guztiak izan dute parte hartzeko aukera eta pertsona bakoitzak iritzi bat aurkezteko aukera zuen. Bataz veste, emaitzak ondorengoak izan dira,:

- 77 pertsonak eman dute bere iritzia
- 35 emakume + 37 gizon+ 5 ez dakigu



- Adin-tarteen arabera banaketa:
16-30 : 8 51-65: 23 ez dakigu: 1
31-50: 25 65etik aurrera: 20
- UDAL TALDEA
 - Udal taldea lanean eta inplikaturik dabil? %96 balorazio positiboa % 80ak oso ondo /bikain baloratu du
 - Udal taldearengana jo dudanean gertutasunez entzun dit eta laguntzen saiatu da? % 13ak ez du beharrik izan eta beharra izan dutenen artean % 93 balorazio positiboa eta % 88 oso ondo / bikain baloratu du.
 - Komentarioak: *“Beti daude entzuteko prest”/ “Bai, Zerainek behar zuen horrelako udal garbitze bat”.*
- INFORMAZIOA ETA GARRANTASUNA
 - Udaleko informazioaren berri izan dut? % 100 balorazio positiboa % 85ak oso ondo / bikain baloratu du
 - Nola? (Garrantziaren arabera ordenatuta)
 1. Txosten idatzien bidez
 2. Xagu Artean
 3. Herri batzarrak
 4. Batzorde eta bilerak
 5. Ahoz aho
 6. Besterik
- BILERETAN PARTE HARTZEA
 - Bileretan parte hartu dut? % 61ak bileretan parte hartu du
 - Zergatik ez duzu parte hartu? Denbora falta, ohitura falta, familiako beste bat doa, motibazio falta herrian dagoen giroarengatik, udaletxearekin konfiantza, beharrik ez, adinarengatik .
 - Bileretan parte hartu dutenen ekarpenak:
 1. Oso ondo
 2. Lan bikaina bilerak antolatzeko eta segimendua egiteko
 3. Jendea batzordeetara animatzea
 4. Jarraitu horrela bikain
 5. Gertutasuna adierazi
 6. Batzarrera ezin dutenak joan galderak bidaltzeko aukera eman eta erantzunak txostenean jaso
 7. Gauzak argi eta garbi behar den bezala ematen dira
- EGINDAKO EKIMENAK ETA PROIEKTUAK
 - % 94ak oso ondo/bikain baloratu ditu egindako ekimenak
 - % 6ak gutxi/nahiko/ondo



- Proiektu onenak:
 - 1. PLAZAKO KOMUNAK**
 - 2. Euskararen eguna
 - 3. emakumeen eguna
 - 4. jubilatuen eguna/irteera
 - 5. 2016ko sanjoanak
- IRITZI ETA EKARPEN OROKORRAK
 - *Bikain jarraitu horrela (kontuak garbi behingoz)*
 - *Ez beldurrik izan egiarekin noranahi joan liteke*
 - *Herrian erreferenduma egin eta emaitza errespetatzen ez duen udak taldeak, alferrik egingo du galdeketa hau, bere burua zuritzeko ez bada.*
 - *Festak beste data batean ospatu irailean.*
 - *Animo eta jarraitu horrela. Ba zen garaia herrian beste iritziak jarraitzeko eta udalean txukunketa eginez gardentasunez lan egitea.*
 - *Horrelaxe jarraitu!*
 - *Bide gorriaren ideia bikaina eta beharrezkoa. Mutiloako bidean ere hala litzateke.*
 - *Orain arteko lanari jarraipena ematea eta denentzako ateak irekita izatea.*
 - *Lehenengo udalean sartu ziren bezala gaizki iruditzen zait, bestela ahal dutena egiten ari dira. Uste dut denon ardura dela konponbidea edo pakea bilatzea baino ardura nagusia udalarena da. Elkarbizitzatik hasi beharra dago.*
 - *Aire berriak sartu dira udaletxean eta transparentzia eta hurbiltasuna.*
 - *Aizpea auzoan jarri dizkiguten eskatu genituen zakar ontziak guztiz eskertuta gaude oraindik botellena falta zaigu.*
 - *Ez kasurik egin besteei AURRERA*
 - *Kontuan izan denok ez garela ganaduzaleak edo ehiztariak, eta hori aukera bat izan dela.*
 - *Bide gorrian eskatuko nuke balla bat oinezkoak zanjara ez erortzeko*
 - *Zeraindik Mutiloara bidean kotxeen errepidea estutu eta bidegorria bertan margotu.*
 - *Hori da bidea (argitasuna)*
 - *Horrela jarraitu dezatela herritarrengandik gertu. Animo!*



- *Jarraitu orain arte bezala; herritar ororen aurrean udalak berdin jokatzeko eta herrian datu eta informazioa gardentasunez ematen.*
- *Herriak horrela ezin duela jarraitu. Bizi ezin izugarria daukagu eta udalak ez du ezer egiten. Udalekoen ardura da herriko egoera honi buleta ematea bestela ez dago gauza onik!! Gure ametsa gure arteko harremana hobetzea.*

2.3 Batzordeak

2.3.1 Herri Bizitza

- **OAKo urteko batzarra eta diru kontuak**

- 2016KO UDABERRIKO KULTUR ASTEA
Aurtengo kultur astea udaberrira pasa genuen, eta positibo bezela ikusi da aldaketa.

2016ko UDABERRIKO KULTUR ASTEA			
	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
MAIATZAK 7 -SEGURA ZERAIN MENDI LASTERKETA- (Xabi udal langilearen ordu batzuk udalekoak)	0,00 €		
MAIATZAK 9 -MONGOLIARI BURUZKO HITZALDIA MARRON-	300,00 €		
MAIATZAK 10 -JUAN LUIS MORAGUES PARTZONERIA-	80,80 €		
MAIATZAK 11 - ENERGIA BERRIZTAGARRIAK GOIENERREN ESKUTIK-	71,39 €		
MAIATZAK 12 -EUSKAL ESTATUA IMAGINATZEN-	0,00 €		
MAIATZAK 13 -PATATA TORTILA LEHIAKETA-OSAGAIAK	211,80 €		
MAIATZAK 13 -PATATA TORTILA LEHIAKETA-SARIA (AFARIA MANDIO)	50,00 €		
MAIATZAK 14 -BARRETERAPIA TALLERRA-	183,50 €		
MAIATZAK 14 -PINTXOAK MANDIO ETA OSTATUTIK-	114,00 €		
MAIATZAK 15 -HERRI BAZKARIA-SAN IXIDRO EGUNA-	419,58 €	372,00 €	
	1.431,07 €	372,00 €	-1.059,07 €

- FESTEN EGITARAU ETA URTEKARIKO AZALAN LEHIAKETA
Festetako programaren azalaren lehiaketan 25 lan aurkeztu ziren horietan Aizpea Elortzarena izan zen bozkatuena, urtekariako azalaren kasuan, ordea, Izar Foronirena. Maila honetan 7 lan aurkeztu ziren. Ideia oso on bezela baloratua izan zen.



2016ko AZALAREN LEHIAKETA(Urtekaria eta festako programa)			
	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
KARTULINAK	7,20 €		
PERGAMINOAK	28,00 €		
FESTEN EGITARAUAREN IRABAZLEAREN SARIA (Margoak eta eskulanak)	46,00 €		
URTEKARIAREN AZALAREAN IRABAZLEAREN SARIA (AFARIA OSTATU)	50,00 €		
	131,20 €	0,00 €	-131,20 €



- SAN JUAN BEZPERA ETA MUTILOAKO JETSIERA
Urtero bezela ospatu da.

2016ko SAN JUAN BEZPERA			
	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
ANTORTXAK	62,00 €		
OSTATUKO TORTILA...	85,00 €		
MANDIOKO TORTILA...	136,70 €		
EROSKETAK AFARI-MERIENDA	34,17 €		
	317,87 €	0,00 €	-317,87 €
MUTILOARA JETSIERA			
	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
2 TRIKITILARI GABIRIAR	40,00 €		
	40,00 €	0,00 €	-40,00 €

- 2016ko HERRIKO FESTAK
Beste urteetan bezala ospatu dira. Aurtengo berrikuntzak, batzuk aipatzekotan: lehen eguneko txekor-janean, ohiko gazta eta haragiz gain, beste jaki bat ere eskaini zela, elikadura modu anitzak daudela agerian utziz.

Honez gain, txakolin dastazeko momentuan Lumagorriko hegala jarri zirela gerturatzen zen ororentzat edo asto karreraren orde txiste-kontalari bat etorri zela herrira.



2016ko HERRIKO FESTAK			
	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
ABUZTUAK 14, igandea			
SANZ ATRAKZIOAK (puzgarriak...)	550,00 €		
ELIZ BUELTAKO KORRIKA SAIOKO SARIAK	52,10 €		
BURUHAUNDI BERRIAK (3 buruhaundi eta 4 mazkuriak)	145,00 €		
HAURREN ARRATSALDEKO GOXOKI ZORROAK (oraindik jasotzeko)			
SAGARDO DASTAKETAKO SAGARDOAK	259,20 €		
SAGARDO BASOAK		756,00 €	
TXEKORRA	1.736,30 €		
TXEKOR PINTXOAK		1.047,50 €	
SEITANA	80,19 €		
SEITAN PINTXOAK		34,00 €	
FESTA GUZTIRAKO OGIAK	197,65 €		
TXEKOR DASTAKETAKO GAZTAIAK	198,00 €		
GAZTA PINTXOAK		261,00 €	
GAU ARG! musika taldea	726,00 €		
SUKARRA 37 musika taldea	120,00 €		
SuKARRA 37 musika taldeako MUSIKA TEKNIKOAK	726,00 €		
ABUZTUAK 15, astelehena			
TXISTULARIA	150,00 €		
TXISTULARIAREN HAMAIKETAKOAK (oraindik jasotzeko)			
BOLATEKO SARIAK DIRUTAN	550,00 €		
BOLATEKO SARIAK SASKIA	65,95 €		
TXAKOLINAK	635,01 €		
TXAKOLIN BASOAK		300,00 €	
PILOTA TXAPELKETAKO SARIA -BI LAGUNENTZAT AFARIA OSTATUN	50,00 €		
4 AIZKOLARIAK	400,00 €		
AIZKORARAKO EGURRA	120,00 €		
TRIKITILARIAK (oraindik jasotzeko)			
TXISTE KONTALARIA	170,00 €		
AZKEN TRENA musika taldea	450,00 €		
ABUZTUAK 16, asteartea			
HERRIKO ARTZAINEN GAZTAK	240,53 €		
DANTZADI musika taldea	550,00 €		



GASTU OROKORRAK			
BARRAKO EDARIAK	575,76 €		
EUSKAL HERRIA (platerak, mantelak...)	590,17 €		
EGITARAU ETA KARTELAK	375,10 €		
GARRAFOIAN ARDOA	160,00 €		
SEGURAKO ZAHAR ETXERAKO PASTEL ETA TXANPAINAK (5 dozena pasteltxo eta 5 txanpain botila)	108,00 €		
KORTXOAK SOBRATUTAKO ARDOA ENBOTELATZEKO	10,50 €		
GAUZA TXIKIAK (zeliakoentzako ogia, mojitotako osagaiak eta basoak...)	161,19 €		
SARRERA OROKORRAK			
BARRAN ATERATAKOA		1.115,20 €	
MANDIO TABERNA (oraindik jasotzeko)		50,00 €	
OSTATU TABERNA			HARAGIA GISATZEKO LANA
ZERAIN PAISAIA KULTURALA			PILOTAKO BI TROFEOK
OTATZA SAGARDOTEGIA			14 ILUNTZEKO TXOTXA
OIHARTE SAGARDOTEGIA			GAZTE AFARIKO BARRIKOTEA
LUMAGORRI			PINTXOTAKO HEGALAK
ITURRIOZ		75,00 €	
AIZKORPE ELEKTRIKARIAK		50,00 €	
	10.152,65 €	3.688,70 €	-6.338,95 €

- HIP HIP URRI
Ondo joan zen 50 lagun inguru, 40 kanpokoak eta besteak Zerain eta Mutilokoak. Erdibana Mutiloko udala eta Zeraingoaren artean ordaindu zen.
- JUBILATU EGUNA
Meza, bertsolariak eta bazkaria, 35 lagun inguruk parte hartu zuten eta oso giro ona izan zen.
- **EKINTZA GUZTIAK (kultur astetik Festak artekoak):**
 - **Gastuak** **14.068,36 €**
 - **Jasotakoa** **5.416,70 €**
 - **Bataz bestekoa** **-8.651,66 €**

• Liburutegia

Hauteskunde aurretik osatu zen herri programan herritarrek eskatutakoa da liburutegia. Goimenek %60ko dirulaguntza emana eta herritarren artean bilerak eginez antolatua: eskola, guraso... etab.ekin elkartuz, bakoitzaren beharren arabera osatua.

Bi eremu: liburuen eremua eta ikasi edo lanak egiteko eremua. Baita ere KZ gunea bertan aurkitzen da.



ERABILERA: Giltza Mandio tabernan hartu eta utzi beharko da. Liburuak hartzeko bertan egongo den kuadernoan izen abizenak idatziz erregistro bat egingo da. Liburua 15 egun-hilabete baten bueltan utzili beharko da. Astelehenetan, arratsaldeko 5.30etatik 6.30etara guraso elkarteak erabiliko du.



- **Pilotalekua**

Kutxaren dirulaguntza batekin kirol ekipamendua jarri da: saskibaloiko bi kanasta, ping-pong mahai bat, porterietarako sareak, baloiak...

Material txikiak pilotalekuko armairuan egongo dira eta giltza Ostatun egongo da.

Pilotalekuko eta liburutegiko gauzak, bakoitzak ondo zaintzeko konpromezua hartu behar dugu.

- **Ikastaroak**

- Yoga, asteartetan 17.30etatik 18.30etara (2017ko urtarrilean hasiko da Kultur etxean)
- Zumba, asteartetan, 20.00etatik 21.00etara (2016-11-29an hasiko da Kultur etxean)



- Pilates eta Euskal dantzak Mutiloarrekin batera taldeak osatzen badira hasiko dira.

Oraindik norbaitek ikastaroren batean hasi nahi badu, aukera dauka udalean izena emateko

- **Azaroko eta abenduko ekintzak**

- **Azaroak 23tik 30era**; Kultur etxean, euskeraren arnasguneak izeneko erakusketa Uemaren eskutik.
- **2016-12-3ko Euskeraren eguna**; Larunbat arratsalde 5etatik 7.30etara talerrak herritar denentzat, heldu eta haur, Kultur etxean eta ondoren merienda Liztormendi elkartean.
- **2016ko Gabonak**;
 - 24 Egunean kantu eskea, aurrez Bittoriorekin entsaioa.
 - 24 iluntzean Olentzeroren etorrera.
 - 2016ko Urtekaria herritar guztientzat.



HERRI BIZITZA BATZORDEKO BILERAK IREKIAK DIRA ETA HILEAN BEHIN LEHENENGO ASTELEHENETAN IZATEN DIRA 18:15ETAN KULTUR ETXEAN.



2.3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza

Funtzionamendua: batzordean 10 lagun dabilta normalean parte hartzen. Batzordea anitzagoa izateko falta zaizkigun perfilak: jubilatuta dagoen herritarren bat eta Aizpeako auzotarren bat. Bilerak hilean behin lehen asteko ostegunean 18:00-19:30 arte egiten ditugu. Orain lantzen gauden proiektuak ondorengoak dira:

Proiektua: Medikuen kontsulta

Apirileko batzarrean honen berri eman genuen. 2016ko aurrekontuan ez dago jasota Osakidetzaen eskaeratik dator. Proiektua landu eta GFA eta EJn aurkeztu zen. Irailean GFaren onarpena. EJrena oraindik ez dakigu.

- **Zer egiten ari gara?** Kontsulta eta itxaroteko gunea tokiz aldatu, berritu eta irisgarritasuna hobetu, berogailua aldatu. 30.000€ inguruko lana. Urtea amaitu aurretik martxan.

Proiektua: Zerain- Segura oinezko bidea

Uztaileko batzarrean lanen hasiera iragarri. Lanak ia bukatuta daude. 2016ko aurrekontuan jasota dago. Proiektua landu ondoren Goimenen, Ejin eta GFAn aurkeztu genuen. Goimenek onartu, GFak ere bai (ukatu). Iturriozek betelanaren zatia.

- **Zer egiten ari gara?** Olabideko bidegurutzetik gure mugaraino oinezkoen bidea errepidearen ondoan. Urtea amaitu aurretik bukatuta.

Proiektua: Plaza egokitze proiektua.

Uztaileko batzarrean lanen hasiera abuzturako iragarri genuen. Proiektua EJn aurkeztu genuen hezkuntza eta landa garapenean. Bat onartuta, bestea ez dakigu.

- **Zer egiten ari gara?** Plazako segurtasuna hobetu eta plaza txukundu. Hasierako fasea da. Beheko plaza kotxeei ixteko aukera, eskaileretan atea, lurrarekin jolasteko arriskurik gabeko tokia, eliz ataria neguan erabili ahal izateko toloak eta argiztapen berria. Urtea amaitu aurretik bukatuta.

Proiektua: Irisgarritasun plan berria

2007ko plana eguneratzen ari gara. Proiektua EJn aurkeztu dugu eta diru laguntza jaso dugu. Plana eguneratua eduki behar da irisgarritasuneko diru laguntzak eskatu ahal izateko.

- **Zer egiten ari gara?** Arkitektoak landu du eta datorren abenduaren 1ean plana aurkeztuko dugu batzordean, ekarpenak egiteko.



Proiektua: Antxaputxuko lur eremuaren azterketa

Plan partziala egin aurretik egin beharrekoa. Proiektua Goimenen aurkeztu dugu eta diru laguntza jaso dugu.

- **Zer egiten ari gara?** Arkitektoa txostena lantzen ari da.

2.3.3 Tokiko Garapena

Hilabete eta erdiz behin elkartzen den komisioa. Zeraingo ekonomia sektoreko 10 pertsona desberdinek hartzen dugu parte komisioan: agroturismoan, ostalaritza, sagarodtegiak, enpresak, artzaiak...

Sektorearen inguruko arazoak eta etorkizuna lantzen dira. Hainbat ideia berri sortu dira Zeraingo produktuak kanpoan saltzea bultzatzeko. Esaterako, Zeraingo produktuekin ornitutako furgoneta bat. Oraindik lantzeko dago ideia, gainera inbertsio haundia eskatzen du baita azoketara joateko konpromezua. Baita ere, turismoa bultzatzeko autokarabanentzako gune txiki bat egitea proposatu da eta zain gaude dirulaguntza batean kokatzen den momentura.

Idea hauetan edo beste batzuetan lan egin nahi duen orok, parte hartu dezake komisioan lasai asko. Gaurkoan, bi gai garrantzitsu landuko dira: **azoka ekologikoa** eta **Lur mugak eguneratzeko** proiektua. Gainera, Mutiloko meatze multzoaren proiektua azalduko dugu.

- **AZOKA EKOLOGIKOA**

Azoka ekologikoaren inguruan, nahiz eta azken momentuan euri zaparradak egin, nahiko jende ibili zela goizean zehar eta azokan saltzen zebiltzanak oso gustora gelditu ziren saldutakoarekin. Aurten, gainera, postu gehiago eskatu dira. Herriko gazteek parte hartu zuten muztioa egiten urtero bezala eta erabat pozgarria da ikustea berdintasuna tolarera iritsi dela baita ere eta ez bakarrik muztioa zerbitzen.

Beste urteetan bezala herritar askok parte hartu zuten laguntzeko eta eskerrik asko eman nahi diegu bere laguntza eta inplikazioagatik. Jarraian emaitza ekonomikoak laburtzen dituen taula bat ageri da. Laburrean esango genuke udalak bere laguntza jetxi duela 3.000 €tatik 2.000€ tara eta enpresek beren laguntzak aurreko urteetan bezala eman dituztela.



AZOKA 2016	IRTEERAK
KANBIOAK	800,00€
POSTUAK -ADRIAN BIOLUR	1.340,00 €
TALLERRAK GALLETA-XABIER AKIZU	100,00 €
TALLERRAK EGURRA XABIER ARRIETA	90,00 €
TOLDOS AGUSTIN (PANKARTA BERRIA)	175,45 €
IMAUDIO MIKROFOOA	48,40 €
BEBIDAS UGALDE	121,37 €
OA KULTUR ELKARTEA EDARIAK	158,23 €
HITZA	411,40 €
K3 INPRIMATEGIA	732,05 €
GOIERRI TB	384,78 €
TRANSP.LOURDES GORROTXATEGI	145,20 €
SEGURA IRRATIA	100,01 €
EUSKADI IRRATIA	302,50 €
ONDARRE GOIKO AUTOZERBITZUA	50,00 €
ARANBURU HARATEGIA	300,00 €
ZEGAMA OKINDEGIA	98,00 €
PATATAK	40,00 €
BAZKARIA OSTATU+SOZIEDADEA	90,00 €
GUZTIRA	4.687,39 €

AZOKA 2016	SARRERAK
DIRULAGUNTZA IRIZAR	300,00 €
DIRULAGUNTZA ZERAINGO UDALA	2.000,00 €
DIRULAGUNTZA OTATZA	50,00 €
DIRULAGUNTZA OIHARTE	50,00 €
DIRULAGUNTZA ORKLI	700,00 €
DIRULAGUNTZA AMPO	200,00 €



KUTXA	200,00 €
CLP	200,00 €
DIRULAGUNTZA GOIMEN (K3 INPRIMATEGIA)	732,05 €
BARRAKO DIRUA	1.526,00 €
GUZTIRA	5.958,05 €

EMAITZAK DENERA	1.270,66 €
------------------------	-------------------

Aurten arratxaldez ekintzarik ez egitea aukeratu da, lehengo urtean egindako esfortzu ekonomikoa eta izan zuen parte-hartze bajua ikusiz. Komisia hurrengo urterako ideia berriak lantzen hasiko da.

- **LUR MURGEEN EGUNERAKETA**

Dakizuen moduan, Uztaileko batzarrean aurkeztu zen proiektua da. Lurjabe bakoitzari (180) planoak banatu zitzaizkien eta informazio guztia eman zen. Ordudanik ondorengoak lortzen saiatu gara:



- Mugetan dauden okerrak zuzentzea
- Mugak finkatzea GPS bidez
- Partzelei izena eta zenbakia ipintzea jabetza zehaztuz
- Katrastoa eguneratzea

Hasieran konetatu genuen bezela, diru-laguntza bat jaso genuen proiekturako eta bi fasetan banatu genuen. Orain dugun informazioarekin, laguntza lortzea ez da erraza eta lehen fase hau Baso Elkarteko teknikoek espero baino mantxoagoa izaten hari da. Gaur egun, 177 jabeetatik, 48k hartu dute parte.

- 800 ha ZERAINGO LUR PRIBATUA
- 260 ha EGINDA
- 40 ha ENTREGATUTA BAINA EGIN GABE
- 500 ha EGITEKO



Oraindik fondo batzuk badaude gastatzeko moduan, eta egoera honetan gauden bitartean, eta dirua bukatu arte, oraindik posible da proiektuan parte hartzea.





- **GOIERRIKO MEATEGI MULTZOA: NATURA ETA KULTURA ONDAREA**

Azkenik, Mutiloarekin elkarlanean aurkeztutako proiektu baten inguruko komentario bat egin nahiko genuke. Proiektu honetan, Mutiloako Peatza gunea eta Zeraingo Aizpita gunea elkartzeko oinezko bide bat egitea zen helburua. Horrela, Zeraingo meategiak eta Ormaiztegi lotuko lituzkeen bide berri bat izanog genuke. Gainera, bidean zehar informazio gehigarria ematen duten panelak egongo lirateke jarrita.

Laguntza bat eskatu da Eusko Jaurlaritzan eta oraindik erantzunaren zain gaude.

2.4 2017ko Aurrekontua

Dagoeneko hurrengo urterako aurrekontua lantzen hari gara batzordetan baita udal taldean ere. Bataz beste, hauek dira ditugun ideiak:

- **HERRI BIZITZA**
 - Festak: festetako partehartzeko prozesua
 - Kultur astea
 - Hezkuntza: eskola, haur eskola, guraso elkarteak, zaintza, udako denbora librearen, taxia
 - Jubilatuenak
 - Komunikazioa: xaguartea, urtekaria
 - Euskera: korrika, herri sarrerako kartela
 - Kirolak
 - Ikastaroak
 - Emakumen eguna
- **ZERBITZUAK, INGURUMENA, AZPIEGITURAK ETA HIRIGINTZA**
 - Etxebizitzak aparkalekuan
 - Plaza egokitzea ii fasea
 - Baserri bideak
 - Obra txikiak: parkea, seinaleak
 - Herriko material berria: aulkiak, mahaia, tola, oholak
- **TOKIKO GARAPENA**
 - Bide berdea
 - Lur mugen proiektua
 - Kartzelako berritzea
 - Mandio eta ostatu ekipamentua



- Autokarabanako gunea
- Azoka
- BESTERIK
 - Euskal fondoak
 - Gaztekin sensibilizazioa
 - Udalbiltza
 - Euskalherria gunea
 - Auzoak

2.5 Herri txikien etorkizunaren inguruko kongresua

Zati honetan udalaren ikuspuntutik kongresuaren inguruko gertaerak eta jokatzeko moduan argitaratu nahi ditugu.

Inolako informaziorik gabe, material eskaera bideratu zuen Zerainlabek Udalera Eusko Ikaskuntzaren bitartekari moduan. Eusko Ikaskuntzari bi aukera eman genizkion udaletik: *doan* udala kongresuaren babeslea bihurtuz eta Udalaren logoa jarritz programan/euskarrietan ohi den moduan edo *ordainduta*.

Kongresuaren gonbidapenen harira, inguruko udalek gonbidapenak jaso zituzten eta Zeraingo udalak ez. Eusko Ikaskuntzako lehendakariaren bidez jaso genuen azkenean.

Erakunde arteko gutxieneko protokoloa eta errespetua ez zen bete eta gainera, Eusko Ikaskuntzako lehendakariak hasiera ekitaldian udala egoteko aginduari muzin egin zion Zerainlabek.

Gauzak horrela, Zeraingo Udalak Hego Euskal Herriko udaletara ohar bat bidali zuen eta dokumentu honi erantsita doa. Honez gain, parte hartzaile batzuk Udalera mezuak bidali zituzten. Kanpoko ikuspegia interesgarria izan daitekeela pentsatuz, hauek ere, erantsita doaz.



ZERAINGO UDALAREN MEZUA

Jn./ And. Agurgarria:

Berriki iritsi zaizue azaroak 17, 18 eta 19an Zerainen egingo den kongresura gonbidapena, gaia etorkizuneko herri txikiak delarik.

Zeraingo Udalak jakinarazi nahi du ez duela inongo zerikusirik gonbidapen honekin, eta kongresuaren antolaketan ez dugula inongo parte hartzerik izan, ezta horretarako aukerarik ere.

Kongresua 2015eko Udal hauteskundeetan parte ez hartzea erabaki zuen kandidatek sortu duen elkarteak sustatu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantziazioa eta babesarekin. Erakundeen arteko gutxieneko errespetuzko harremanak izateko arauak kontuan hartu gabe eta diru publikoa erabiltzeko modu oso zalantzaragarriak erabilita, gure ustez.

Nola hitz egin dezakegu herri txikien etorkizunaz Zerainen, gure udal txikia erabat baztertuta? Kultura politiko eta inertzia zaharrekin nekez lortuko da elkarlana eta elkar eraikuntza.

Hace poco habréis recibido la invitación al congreso que se realizara en Zerain los días 17, 18 y 19 de noviembre cuyo tema es el futuro de los pueblos pequeños.

El ayuntamiento de Zerain comunica que no tiene nada que ver con esa invitación, y que no hemos tenido ningún tipo de participación en la organización del mismo hasta la fecha, ni tampoco hemos tenido opción para ello.

El congreso ha sido promovido por la asociación que ha formado la candidatura electoral que en las elecciones municipales de 2015 finalmente no se presentó a las elecciones, con la financiación y apoyo de la Diputación de Gipuzkoa.

Por nuestra parte consideramos que no se ha tenido en cuenta el mínimo protocolo que hay que tener para lograr relaciones respetuosas entre instituciones y en nuestra opinión resulta muy dudoso el uso que se ha dado al dinero público en esta ocasión.

¿Se puede hablar del futuro de los pueblos pequeños en Zerain, en un congreso en el que nuestro pequeño ayuntamiento ha sido ninguneado?



Con esta vieja cultura política y con estas viejas inercias difícilmente se lograra la colaboración y construcción conjunta que nuestro pueblo necesita.

Agur bero bat



ATXONDOKO ALKATEAREN ERANTZUNA (David Cobos Sarraoa)

David Cobos Sarraoa naiz, Atxondoko alkatea eta Ehbildu koalizioko zerrendaburua 2015eko udal hauteskundeetan. Aurretik ere Atxondoko alkate izan nintzen 2007-2011 legegintzaldian, EAE-ANV alderdiaren zerrendaburu gisa aurkeztu ostean.

Idatzi hau Zeraingo Udalar, Eusko Ikaskuntzari eta ZerainLaberi zuzentzen dizuet aldi berean, aurreko astean zuen herrian antolatutako jardunaldien harira. ZerainLab delakoaren helbide elektronikorik ezin izan dut inon aurkitu, ahaleginak eta bi egin izan arren eta, beraz, beste bi hartzaileei eskertuko nizueke mezu hau haiei ere helaraziko bazeniete.

Jardualdiak baino astebete lehenago, Eusko Ikaskuntzatik deia jaso nuen Udaletxean, Zerainen egitekoak ziren jardunaldi batzuetan hizlari gisa parte hartuko ote nuen galdetuaz. Antza denez, gure herrian etxebizitza arloan eginiko urratsak interesgarriak izan zitezkeen beste herri txiki batzuentzat eta, horri buruzko azalpen eta argibideak emateko deitzen ziguten.

Egia esan, ez da lehenengo aldia gai honi buruz galdezka deitzen digutela bai udal eta zinegotziek zein ikasle eta akademikoren batek ere. Horrela ba, gustu handiz eman nuen baiezkoa.

Gonbita onartuta, hala ere, arraro egin zitzaidan hain egun gutxiko aurrerapenez jaso izana eta, are gehiago, Eusko Ikaskuntzak antolatutako jardunaldiak zirela jakinda. Era berean, gerora ere ez nuen ondo ulertu nola zitekeen hamar minutu besterik ez izatea azalpenak emateko. Gai honetaz ezer ez dakien entzulego bati oinarrizko nondik norakoak hamar minutuan azaltzea ez da erreza eta litekeena da gauza handirik ez ulertzea. Era berean, gaiari buruzko ezagutza maila jakin batetik gorakoentzako ere ez da oso baliagarria izango, hamar minutuan ezer gutxi sakondu daitekeelako.

Baiezkoa eman eta egun gutxira Zeraingo Udalaren ohar bat jaso genuen Udaletxean, esanaz beraiek ez zutela inongo zerikusirik jardunaldiekin eta beraiekin ezertarako kontatu barik antolatutako gauza zela. Orduan konturatu nintzen ere hitzaldiak ez zirela udaletxe, liburutegi edo kultur etxe batean egingo, ohikoa den eran, baizik eta elizan. Hainbat egunetako jardunaldiak (akademikoak, politikoak edo herritarrak) eliza batean egitea ez da ohikoa eta are gutxiago neguan baina, “tira”, pentsatu nuen, “herri



berezia izango da Zerain eta eliza berezia hangoa". Edonola ere, joan aurretiko guzti hauek zeozer arraroa zegoela erakusten zuten, inongo zalantza barik.

Behin Zerainera helduta ikusi nuen beste hamar bat lagunen azalpenen artean kokatuta zegoela Atxondoko kasua eta, beste hizlariak entzuten oso gustura egon banintzen ere, faltan bota nuen guztien harteko hari sendoago bat. Hau da, bakoitzak bere herriko esperientzia ahal izan genuen moduan bota genuen eta gehienetan oso gai ezberdinak azaldu genituen, elkarren arteko loturarik ez zutenak. Ondorioz, ikuspegi akademiko batekin etorri zirenek ez dakit etekin handirik aterako ote zioten ostiral arratsaldeko saioari eta gauza bera esan nezake hurbildutako herritar apurrei buruz.

Aurretik azaldutako guztiak, baina, argi eta garbi ulertu nituen ostiral arratsaldeko saioaren bukaeran. Izan ere, beste herri guztietako gonbidatuok berba egin ostean Zeraingo "ordezkariaren" txanda heldu zen eta, niretzako behintzat, argigarria izan zen oso. Argigarria eta lotsagarria, zeren, diskurtso politiko-elektoral hutsa izan zen harena, herrigintzari dagokion inongo edukinik gabekoa eta iazko hauteskundeetan Zerainen gertatutakoaren ondoriozko nolabaiteko errebantxa edo kasketaldia besterik ez zena.

Guztiok dakigu hamaika hizlariren artean ulertzekoa dela bata edo bestea politikoki guztiz zuzena ez izatea, gaiarekin zerikusi handirik ez duen aipamenen bat egitea edo besteek diotenaren bestelako iritzia plazaratzea. Ulertzekoa eta, are gehiago esango nuke nik, osasungarria ikuspegi politiko anitz eta demokratiko batetik.

Ez dena ulergarria ezta onargarria da Zerainen gertatutakoa; hots, jardunaldi batzuk antolatzea eta hamaika gonbidatu ekartzea azkenean norbere diskurtso elektoralista huts bat besterik ez dena hauspotu, jantzi eta azpimarratzeko. Eta, kasu honetan, ezin da aitzakia moduan esan hizlariak nahi dutena esatea libre dutela. Izan ere, Zeraingoa ez zen hizlari hutsa, antolatzailea baizik.

Herri txikien etorkizunari eta erronkei buruz hitz egitera gindoazen bestean artean, hara non hasi zitzaigun Zeraingo hizlaria esaten orain arteko hango sistema ezinhobea zela eta EHBilduk pikutara bidali duela, herritar gehienek borondatearen aurka. "Diktadore" edo "estatu-kolpe" berbak erabiltzea bakarrik falta izan zitzaion.



Zeraingo historia eta hango Udaleko nondik norakoak ezagutu barik, astakeria itzela iruditzen zaizkit Zeraingo elizan entzundako asko. Hala nola zalantzan ipintzea alkatetzan dagoen taldearen zilegitasuna. Hizlariak eta bere taldeak iazko hauteskundeetan ez aurkeztea erabaki bazuten, beraiek jakingo dute zergatik izan ote zen, baina inor ere ez zien debekatu. Herriko beste talde batek, edozein izanda ere, hauteskundeetara aurkezteko eskubide eta zilegitasun osoa dute eta hori zalantzan ipintzeak agerian uzten duen gauza bakarra da adierazpenak egiten dituenaren oinarri-oinarrizko defizit demokratikoa.

Era berean, salatzea herritarren %30 besterik ez duela talde berria babestu eta, ondorioz, gobernatzeko zilegitasunik ez dutela esatea, auzo-lotsa ematen duen baieztapena besterik ez da. Izan ere, agian hizlariak gehiengo/gutxiengo eredua baino formula hobeagoa ezagutzen du, baina horrek ez dauka demokraziarekin zerikusi handirik. Eta zerikusia izatekotan ere, ez da ulertzen nola ez duen irizpide bera erabiltzen bestelako maila instituzionaletan dauden agintarien zilegitasuna zalantzan ipintzeko. Esate baterako, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan herritarren %20ko babesa besterik ez zuen lortu gaur eguneko Ahaldu Nagusiak edo, beste adibide bat jartzearen, herritar guztien %22ak besterik ez zuen babestu une honetan daukagun Lehendakaria. Horiek ez dira, baina, ZerainLabekoentzako salagarri, noski. Horren zergatia izan daiteke, agian, erakunde horiek diruz ondo lagundu dutela jardunaldiok antolatzen, inongo interes politiko barik, seguraski.

Egia da pare bat aldiz esan zuela hizlariak esandakoa bere ikuspegia zela eta balitekeela bestelako iritzirik egotea herrian. Noski balitekeela eta agerian dago hala dela. Ulertzen ez dena da herrian bertan gertatu denari buruzko diskurtso elektoralak botatzea eta aukerarik ez ematea bertako Udaleko ordezkariak beraien ikuspegia azaltzeko. Horrelakorik egitekotan, bakoitzak egin dezala batzokian, herriko tabernan edo egokien deritzon lekuan, lagunez inguratuta, baina ez era honetako jardunaldi batean eta zerikusirik ez daukagun beste udaletako ordezkarien asmo ona aprobetxatuta.

Era honetako jardunaldi batzuen antolatzaile batek akademikoak, komunikabideak, herritarrak eta hamaika herritako ordezkariak gonbidatzea eta diru publikoa erabiltzea norbere diskurtso elektoralak zabaltzeko eta, gainera, norbere herriko Udalaren aurka egiteko, tamalgarria iruditzen zait. Nire burua eta ordezkatzeko dudak Udalaren eta herriaren izenak era honetan erabiliak izan direla ikusteak atsekabe



handia eragiten dit eta uste dut nire betebeharra dela hori jakinaraztea idatzi honen hartzaile zareten hiru aldeei.

Zeraingo hizlariak esan zuen moduan, “lehengo udalaren jardunean ardura zuten egiten zutenek eta egiten uzten zutenek”. Ba, amaitzeko ekarpen apal gisa, ondorengoa esango nioke nik aipamen horren harira: Zerainen orain bizi den egoeraren ardura ere konpartitua da: egin dutenena eta egiten utzi dutenena. Izan ere, horixe da demokraziaren oinarria, alde daudenekin, laguntzen dutenekin, egiten uzten dutenekin eta aurka daudenak ahaztu gabe aurrera egitea, guztiok erabat ados egongo garen egunaren zain egon gabe, egun hori ez da sekula helduko eta.

Euskal herrian demokraziaren eta herriaren izenean eskubide urraketa gehiegi izan dugu honez gero. Urrutira joan beharrik gabe, niri eta 2007an nire zerrendakide izandako guztioi “de facto” debekatu zitzaigun 2011ko hauteskundeetara aurkeztea eta badakigu zeinen mingarria den hori. Hautagai izateari borondatez uko egin dionak, oposizioan egotea edo oposizio bat parean izanda gobernatzea pentsaezin egiten zaiolako, ezin daiteke ibili inori demokrazia eta partehartze irakaspenak ematen. Askorentzako iraingarria da hori.

Espero dut aurrerantzean gai izango zaretela Zeraingo arazo eta diferentziak hizketan konpontzeko, ingurukoak tartean sartu barik. Espero dut ZerainLaben zabilztatenok ulertuko duzuela gobernu-oposizio ereduak ez duela esan nahi beti elkarren aurka aritu behar denik eta elkarlanerako aukera ere badela. Eta espero dut Eusko Ikaskuntza moduko erakunde bat ez dela berriro era honetako saltsatan laguntzaile gisa arituko, daukan izen onari inongo mesederik ez liokeelako egingo eta.

Begirunez,

*David Cobos Sarraoa
Alkatea
Atxondoko Udala*



ARANGOITI ESAM KULTUR ELKARTEA

Kaixo Arantza:

Urteak dira Zeraingo lana eta elkarrekin egin duzuen ibilbidea ezagutu nuela, herri lana beraz. Segura bitarteko erdi aroko bidea garbitzen ere laguntzen egona naiz. Gure herrian Zerain eredu da, gure lanaren antolaketarako. Zuen Kudeatzailea Jakoba ere gure Udaberriko Lore eta Landareen Azokan parte hartu zuen. Zuen Udal hauteskundearen egoera ezaguna da guretzat, gertutik jarraitzen baitugu zuen herri bizitza.

Espero dut, orain duzuen Fundazioa eta Udalaren arteko egoera hau, ez dela izango etorikizunerako harreman eredu, herrietan elkarlana ezinbestekoa da. Gure herrian ibilbidea bestelakoa izan da eta, zaila izan da Udala eta horretan egon ez garenon elkarlana sustatzea, baina konstantziarekin eta ahaleginarekin, beti badago elkarrekin zerbait egiteko, antolatze eta aurrera ateratzeko.

Elkar ulertze bidea jorratu dugu eta Zerain eredu mahai gainean jarrita, orain gurean Udalarekin elkarlana estua da eta elkarbizitzan nabari da.

Zeraingo biltzarran parte hartuko dut gure Elkartearen izenean, hor izango gara gure herria egin dugun ekimen xumeak azaltzeko eta zuekin partekatzeko.

Jaso agur bat zu ere.

*Fernando Trebol
Idazkaria*